

DEFINIZIOAK

UR-MASEN KALITATEAREN ESTADISTIKA (090214)

Ur-masa

Ur-masatzat jotzen da ezaugarri homogeneousak dituen ur-unitate bereizi eta esanguratsua. Ur- masa baten mugek espazio-oinarri bat osatzen dute, eta bertan posible da eragiten dioten presioen eta inpaktuen azterketa egitea, azterketa horretatik eratorritako jarraipen-programak eta neurriak zehaztea, eta aplikatzen zaizkion ingurumen-arloko helburuen betetze-maila konprobatzea.

Ur-masak honela sailkatu daitezke:

- **Azaleko ur-masa:** lurrazaleko uren multzo bereizi eta esanguratsua, esate baterako aintzira bat, urtegi bat, ur-laster bat, ibai edo ubide bat, ur-laster, ibai edo ubide baten zati bat, tarteko ur batzuk edo itsasertzeko uren zati bat.
- **Lurpeko ur-masa:** lur azpiko ur-masa jakin bat, beste ur-masetatik erabat bereizita eta akuifero bakar batean edo gehiagotan dagoena.

Ur-masen kategoriak

Azaleko ur-masak **kategoria** hauetan sailkatzen dira Uraren Esparru Zuzentarauaren (UEZ) arabera:

- **Ibaia:** gehienbat lurrazalaren gainetik doan ur-masa kontinental, baina ibilbidearen zati batean lur azpitik ere joan daitekeena.
- **Urtegiak:** azaleko ur-masa kontinental geldia.
- **Trantsizio urak:** ibai-bokaleetatik hurbil dauden azaleko ur-masak, neurri batean gaziak direnak itsasoko urarekin bat egiten dutelako, baina ur gezaren aski eragin handia ere izaten dutenak.
- **Itsasertzeko urak:** ur territorialen zabalera neurtzeko oinarri gisa erabiltzen den lerrotik hurbileneko puntuan kokatuta, bere puntu guztiak itsaso barrurantz milia nautiko batera dituen lerrotik lehor aldera dauden lur azaleko urak; urok, hala badagokio, tarteko uren kanpoko alderaino iritsiko dira.

Ur-masa motak

Bestalde, **naturaltasun** mailaren arabera, azaleko ur-masak mota hauetan sailka daitezke:

- **Ur-masa artifiziala:** gizakiaren jarduerak sortutako azaleko ur-masa; lehen ur xaflarik ez zen lekuetakoak (adibidez, ur-ibilguetatik kanpoko ubideak eta urmaelak).
- **Asko eraldatutako ur-masa:** azaleko ur-masa, gizakiaren jarduerak eragindako aldaketa fisikoen ondorioz bere nolakotasunean aldaketa nabarmenak izan dituen (adibidez, lehen ibaiak ziren eta, aldaketaren ondoren, laku gisa jokatzen duten lakuak).
- **Masa naturalak,** zeinetan aldaketak txikiak baitira.

AZALEKO UR-MASEN EGOERA

Egoera ekologikoa: azaleko urei loturiko ekosistema urtarren egitura eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazle bat da. Adierazleak ebaluatzen dira azaleko ur tipologia bakoitzaren erreferentziazko baldintzekiko duten desbideratze mailaren arabera, hau da narriadurarik gabeko baldintzekiko desbiderapena, eta 5 klastetan sailkatzen da:

- **OSO ONA:** UEZren ingurumen helburuak betetzen ditu, eta aldaketen gabezia erakusten du (edota garrantzi gutxiko aldaketak).
- **ONA:** UEZren ingurumen helburuak betetzen ditu, eta erreferentziazko baldintzekiko distortsio maila baxua erakusten du.
- **NEURRIZKOA:** ez ditu UEZren ingurumen helburuak betetzen, eta ekosistema urtarren funtzionamendu egokia bermatzea baimentzen ez duen neurrizko edo tarteko distortsio gradua erakusten du.
- **ESKASA:** ez ditu UEZren ingurumen helburuak betetzen, eta ekosistema urtarren funtzionamendu egokia bermatzea baimentzen ez duen aldaketa esanguratsuen gradu bat erakusten du.
- **TXARRA:** ez ditu UEZren ingurumen helburuak betetzen, eta ekosistema urtarren funtzionamendu egokia bermatzea baimentzen ez duen aldaketa larrien gradu bat erakusten du.

Potentzial ekologikoa: ur masa artifizialei eta oso eraldatuta dauden ur masei loturiko ekosistema urtarren egitura eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazle bat da.

Egoera kimikoa: azaleko uren kalitatearen adierazpena da, zeinak lehentasunezko substantzien eta bestelako kutsatzaileen Ingurumen Kalitate Arauen (IKA) betetze maila islatzen duen. IKA da ingurumena eta gizakien osasuna babesteko asmoz, uretan gaintitu behar ez den kutsatzaile jakin baten (edo multzo baten), sedimentuen edota biotaren kontzentrazioa. Gaur egun 817/2015 Errege Dekretuak ezartzen ditu azaleko uren egoeraren jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak, baita ingurumen kalitatearen arauak ere. Egoera kimikoa hurrengo irizpideen arabera zehazten da:

- **ONA:** IKAk betetzen ditu, bai urteko batezbesteko balioei, bai aldizkako balio maximo onargarriei dagokienez.
- **EZ DU BETETZEN:** kutsatzaile baten kontzentrazioaren urteko batezbesteko aritmetikoak urteko batezbesteko kontzentrazio bezala adierazitako IKA gaintitzen du; edota kutsatzaileen aldizkako balio batek gehienezko kontzentrazio onargarri bezala ezarritako IKA gaintitzen du.

Uraren egoera orokorra: Azaleko uren egoera, honen egoera/ potentzial ekologikoaren eta egoera kimikoaren baliorik okerrenaren bidez zehazten da, eta bi klastetan sailkatu daitezke: **ONA**, UEZren ingurumen helburuak betetzen dituenean, edo **ONA BAINO OKERRAGOA**, betetzen ez dituenean.

2021 URTEA. EGOERA EKOLOGIKOA ETA GLOBALA

Aurretiko serie estatistikoari dagokionez, 2015-2020 aldiko ebaluazioak berrikusi dira; hala, laginketa-, analisi- eta ebaluazio-protokoloak egokitu dira honako arau hauek kontuan hartuta:

- Batzordearen Erabakia, 2018ko otsailaren 12koa, zeinaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauarekin bat etorriz, interkalibrazio-ekitaldiaren ondorioz estatu kideen jarraipen-sistemen sailkapenen balioak ezartzen baitira eta 2013/480/EB Erabakia indargabetzen baita.
- Lurrazaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gida, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren (SEMA) 2020ko urriaren 14ko Instrukzioak onartua. Instrukzio horrek Plangintza Hidrologikoaren hirugarren zikloan ur-masen egoera ebaluatzeko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu .

Era berean, berriz aztertu egin dira potentzial ekologikoari buruzko balorazio batzuk (organismo fitobentonikoak), bai eta trantsizioko eta kostaldeko uretako kalitate fisiko-kimikoko elementuei buruzkoak ere.

LURPEKO UR-MASEN EGOERA

Lurpeko ur-masen egoera: Lurpeko uren egoera, honen egoera kuantitatibo ona eta egoera kimikoaren baliorik okerrenaren bidez zehazten da.

LURPEKO UR-MASEN EGOERA ONA: lurpeko ur-masa batek lortzen duen egoera, bere egoera kuantitatiboa edo kimikoa onak direnean. Egoera kuantitatibo edo kimikoaren beste edozein konbinazioarekin, ur-masaren egoera **TXARRA** da.

Definizio hauek *817/2015 Errege Dekretutik (RD 817/2015 de 11 de septiembre, por el que se establecen los criterios de seguimiento y evaluación del estado de las aguas superficiales y las normas de calidad ambiental)* eta Uraren Esparru Zuzentarauaren garapenerako arauditik datoz.

2021 URTEA.

Aurretiko serie estatistikoari dagokionez, 2015-2020 aldiko ebaluazioak berrikusi dira honako arau honekin bat etorriz:

- Lurrazaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzeko gida, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren (SEMA) 2020ko urriaren 14ko Instrukzioak onartua. Instrukzio horrek Plangintza Hidrologikoaren hirugarren zikloan ur-masen egoera ebaluatzeko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu.